

ESKOLAGUNE

Ekoetxea Urdaibai

Iraganera begiratzeko

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

ARLO/IKASGAIA: Natur zientziak, biologia eta geologia

ARLO/IKASGAI ERLAZIONATUAK: Kultura zientifikoa eta geografia eta historia

Ikaskuntza esperientzia paregabea Urdaibaiko bi gune enblematiko ezagutzeko: Santimamiñeko multzo arkeologikoa eta Ekoetxea Urdaibai.

Gizakia Paleolitoan nola bizi zen, denboran zehar paisaia eta biodibertsitatean izandako aldaketak eta gure ekintzek ingurunean nola eragiten duten ikusiko dugu. Bisitaren zati bakoitzak 1,5 ordu inguruko iraupena izango du.

Gure iragana ulertzeko eta etorkizun arduratsuago baten alde jarduteko proposamena.